

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Proiektua aurrera eramateko, beste enpresa batzuekin aliantzak egitea erabaki dugu; izan ere, modu honetara, gure ideia eremu handiago batean zabaltzeko aukera ematen da. Hasiera batean, kontaktuan jarri ginen enpresek, ez zuten gure proiektua erakargarria ikusi, baina denbora igaro ahala, hainbat aldaketa eginez etab. hauek konbentzitzea lortu eta lana aurrera eramatea lortu dugu.



Herriko enpresekin jarriko gara lanean lehendabizi, “Inforline”, “Infomadaya” eta horrelakoekin. Horiekin lan eginez diru kantitate bat lortu ondoren, produktua zabaltzeko intentzioarekin, iragarkien munduan sartuko gara: herriko komunikabideetatik hasiz; Urola Telebistatik eta KKinzona irratitik, Internetera salto egingo dugu, hau da, jendeak egiten dituen bilaketak gure produktuarekin zerikusia badute, gure iragarkia agertuko zaie.

Sasieta Mankomunitatea ere funtsezkoa izango da guretzat, haien bidez lortuko baitugu berrerabiltzeko materiala, kasu honetan, kortxoak. Harremanetan jarriko gara ere “Comprimiteair” enpresarekin, hau da, airezko kapsulak salduko dizkigun enpresarekin. Gure bezeroek airezko kapsula txikiak erostean deskontu bat lortzeko aukera izango dute, kodigo baten bidez, esaterako. Airezko kapsula horiek agortzean, gehiago erosteko aukera izango dute gure webgunean, hau da, ez dute beste funda berri bat erosi beharko.

Horrez gain, sare sozialetan ere aurkigarri egongo gara; bai publizitatea egiteko, eta bai bezeroei gurekin harremanetan jartzeko aukera emateko. Instagram, Facebook eta Twitter-en egongo gara, baina; hala ere, web orri bat sortu, eta bertan atal bat eskainiko dugu bezeroek izan ditzaketen zalantzak argitzeko edota erositako produktuak arazo edo akatsen bat badu, hura itzultzeko aukera emateko. Gure produktua saltzen duten dendariak ez ditugu ahaztuko, fundari buruz jakin beharreko oinarrizko informazioa azaldu eta gerta daitezkeen arazoei aurre egiteko prestatuko ditugu.

Hori guztia lotzeko, bakoitzak funtsezko baliabide bat eskeinitiko du:

Endika: Informatiko eta ekonomilaria

Unai: Muntaketa

Miriam: Diseinua

Maria: Garraiatzailea

Euskal Herriko Enpresa

